

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 45/2021 Foru dekretua, irailaren 14koa. Onestea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriak, baita 2021erako deialdia ere**

Aspaldi erakutsi zen sexu nahasketako tekniken bidez mahats mordoaren sitsari aurka egiteko metodoa eraginkorra dela, bai eta kausa-ondorio harremana dagoela ere mahastietan mahats mordoaren sitsa garatzearen eta mahatsaren heltze aldiaren botrytisa agertzearen artean. Horrek eragin negatibo zuzena dauka fruituaren kalitatean eta, beraz, ardoen kalitatean.

Sitsa kontrolatzeko sistema hori aspaldi ezarri zen mahastizaintza eta ardogintzako beste zona batzuetan, bai eta Errioxa jatorrizko deituraren barruko zona jakin batzuetan ere, eta emaitza bikainak eman ditu. Hala ere, gure eremuan oraindik ez dago behar bezainbeste ezarrita eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak interes handia dauka Arabako Errioxako eskualdean teknika horren erabilera sustatzeko. Horregatik, otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduen bidez, onetsi ziren foru agindu honen eranskinean jasotako sexu nahasketako teknikak erabiliz Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategiaren garapeneko parte-hartzaile talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriak. Horren ondorioz, beren ustategietan teknika horretaz baliatzeaz interesa duten pertsona eta erakundeek zerrenda egin zen.

Teknika horren baldintza teknikoak eta ekonomikoak direla eta, teknika hori garatzeko enpresa eta erakundeek parte hartze aktiboa behar da, sustatzaile eta aholkulari jardun dezaten, bai eta osagai kimikoen eta haiek aplikatzeko behar diren ekipoen hornitzaileena, eta teknikaren azken erabiltzaile izan nahi duten mahastizain partikularrena eta upeltegiena ere.

Beraz, proiektaturiko foru dekretuaren xedea eta helburua da oinarri arautzaile berriak ezartzea Araban mahastien sitsari (*Lobesia Botrana*) aurre egiteko estrategia garatzen dituzten proiektuak sustatzeko laguntzetarako, mahastietan sexu nahasketako teknikak aplikatuz, Araban teknika hori aplikatzeko lankidetzak proiektuak sustatzeko eta haren garapena bultzatzeko eta hainbat eragileren artean sinergiak sortzeko.

Kontuan harturik laguntza lerro hori ez dagoela jasota Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoan (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatuta), bidezkoa da hura aldatzea.

Bete dira xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak.

Aginduzko txostenak ikusi dira, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriak onestea Foru Dekretu honen I Eranskinaren testuaren arabera.

Bigarrena. Onestea, 2021. urterako, mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (*Lobesia Botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza, honako xehetasun hauen arabera:

– Eskaerak aurkezteko epea eta lekua: Bost egun baliodun, dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak bere 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuetako erregistro elektronikotan, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaez bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzeko dutenek.

– Kreditu erreserba: 15.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40.1.01.42.01.227.99.04 2 "Izurrien kontrol biologikoa. Fitoak murriztea" partidaren kontura. (Zorpekinaren erreferencia 21.1.21.105.3068/000)

Kreditu horiek munta gehigarriekin handitu ahal izango dira, hasieran gordetako zenbateko berdinez gehienez ere, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoaren eranskina (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatua), eta haren barruan sartzea xedapen honen eranskinean ageri den edukia.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nekazaritza saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

## ERANSKINA

### 1. artikulua. Xedea eta definizioak

1.1. Foru Dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea Arabako Errioxan eta Aiaran mahatsaren sitsa kontrolatzeko sexu nahasketako tekniken erabilera garatzea helburu duten proiektuak sustatzeko.

1.2. Laguntza araubide honek ondokoak bultzatu eta sustatzeko helburua du:

a) Izurriak kontrolatzeko metodo eraginkorrak eta ingurumen inpaktu txikiagokoak erabiltzea, ohiko tratamendu kimikoen alternatiba moduan, haien erabilera gero eta murriztuago baitago ingurunean dituzten ondorio kaltegarriengatik.

b) Kalitateko ekoizpena mantentzearen alde egitea.

c) Agrobiodibertsitatea zaintzea Arabako Errioxa eta Arabako Txakolina deituetako mahastietan.

d) Landa eta nekazaritza paisaia zaintzea eta dibertsifikatzea, bereziki Arabako Errioxako mahastietako paisaia babestua.

### 2. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan daitezke neurriaren baldintza orokorrak eta bereziak, hurrengo artikuluan ezartzen direnak, betetzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak.

#### 2.1 Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan erroldatutako nekazaritzako ustiategi baten titularra izatea.

b) Araban dauden mahasti guztiak Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan erroldatuta edukitzea.

c) Ez edukitzea mahasti ez-emankorrik edo arauz kanpikorik.

d) Bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean egotea.

e) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

f) Administrazio zehapenik edo zehapen penalik jaso ez izana sexua dela-eta diskriminazioa egin izanagatik, eta debeku horrekin zigortuta ez egotea otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrez (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea).

g) Dekretu honetan ezarritakoaren arabera eskaera egitea.

#### 2.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak bete beharko ditu artikulua honetako 2.1 apartatuan jasotzen diren baldintzak.

b) Nortasun juridikorik ez duten sozietateek ezin izango dituzte laguntza horiek jaso, salbu eta:

- Jaraunspen erkidegoek, gutxienez sei urterako indibisio ituna baldin badago haien gainean.
- Eskritura publiko bihurtutako agiriaren bidez osatutako sozietate zibilek.
- Estatutuak jasotzen dituen agiri pribatu batean eraturako ondasun erkidegoek, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren Zerbitzuak behar bezala izapidetuta.

• Titulartasun partekatuaren itxura daukaten nekazaritza ustiategiek, bat etorri urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin.

2.3 Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa kasuan kasuko erakundeetatik lortuko da, eta lehentasuna izango dute Arabako Lurralde Historikoko Ustiategiaren Erregistroak eta haren Mahastien Erregistroak; aldaketak egin behar badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik aldatzea, eta titularraren erantzukizuna izango da hori.

### **3. artikulua. "Sexu nahasketako tekniken bidez mahatsaren sitsari aurka egiteko estrategia garatzeko proiektuen sustapena" delako neurrirako baldintzak eta berariazko konpromisoak**

3.1 Aurreko artikuluan ezarritakoaz gainera, onuradunak ondoko baldintza eta konpromiso hauek ere bete behar ditu:

- Eskaeran jarritako lurzati landuak lantze egoera egokietan mantentzea.

- Hala badagokio, erabilitako produktua (bufferrak edo barreiagailuak) sorotik kentzeko asmoaren berri ematea Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari. Bestela, ulertuko da produktuak irauten duela eskaeran jarritako lurzatietan. Presentzia hori, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak betetzearen froga fidagarritzat jotzen da. Presentziarik ezari ez-betetzea iritziko zaio eta laguntza ukatzea ekar dezake ondorioz.

- Ihinztatze bidezko teknika aplikatzea aukeratzekotan, tratamendu hori egin den lekua eta eguna erregistratuta geratu diren landako koadernoak aurkeztea. Halaber, tratamendurako aurrez ezarritako eguna aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari, kontrol egokia egin dezan.

3.2 Banakako eskaerak taldean aurkeztu beharko dira, eta proiektuaren kudeatzaileak aurkeztutako proiektu baten barruan egon. Proiektuak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Pertsona fisiko edo juridiko batek aurkeztea, zeina proiektuaren kudeatzaile egiten baita. Aurkezleak ez dauka zertan izan nahitaez parte hartzen duten nekazaritza ustiategietako bat, eta Nekazaritza Sailarekiko solaskide kolektiboaren eginkizunak bete beharko ditu.

- Kudeatzaileak aurkeztutako memorian, banan-banako eskaerez gainera, emandako datuen arabera haiek ebaluatzeko behar den informazioa ere jasoko da. Informazio hori eranskin moduan aurkeztu beharko da. Horren edukia 5.3. artikuluan azaltzen da zehatz mehatz.

- Bai kudeatzaileak, bai parte hartzen duten nekazaritza ustiategiekin, aurretiaz interesa agertu beharko dute otsailaren 1eko 24/2021 Foru Aginduan ezarritakoaren zentzuan –agindu horren bidez, onetsi ziren Arabako Errioxan mahats mordoaren sitsari (Lobesia Botrana) aurka egiteko strategiaren garapeneko parte-hartzaile talde bat sortzeko interesa agertzeko deialdi publikoaren oinarriak.

- Proiektuaren barnean sar daitezke Arabako Lurralde Historikotik kanpoan dauden lurzatiak, baina Araban dauden finketan egindako ekintzetarako bakarrik emango da dirulaguntza.

### **4. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa eta kalkulua**

4.1 Eskatzaileen eta sartuta dauden proiektuak lortutako puntuen zerrenda egingo da, ondoko puntuan zehaztutakoaren arabera.

4.2 Kalkulua: Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, elkarlaneko proiektua balioetsiko da ondoko parametro tekniko hauen arabera, eta kontuan edukiz mahatsaren sitsaren aurkako sexu nahasketako tekniken ezaugarriak eta eraginkortasun handiagoa edo txikiagoa:

- Proiektuan parte hartzen dutenen kopurua:

5–10: 10 puntu.

11–20: 20 puntu.

20 baino gehiago: 30 puntu.

- Proiektuaren barruan dagoen azalera, hektareatan:

5–10: 10 puntu.

10–50: 20 puntu.

50 baino gehiago: 30 puntu.

- Proiektuan jasotako aldearen trinkotasuna:

Trinkotasuna koefiziente bat da, teknika honen erabilera eraginkorra izateko faktore garrantzitsuenetako bat neurtzen duena: alegia, lurzatiak elkarren mugakide izatea, bere artean ahalik eta hutsarte txikienak utzita, eta teknika hau erabiltzen ez duten lurzatiekiko mugak ahalik eta luzera txikiena izatea. Honela definitzen da: eragindako eta benetan tratamendua emandako lurzatiaren azalera eta lurzati horiek barnean hartzen dituen gutxieneko kanpo azalera arteko koefizientea.

0–0,5: 10 puntu.

0,5–0,8: 20 puntu.

0,8–1: 30 puntu.

4.3 Zenbatekoa: Priekturako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ondoko taulan adierazitako ehuneko izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena, aurretik azaldutako irizpideekin lortutako puntuen arabera.

<u>40 punturaino</u>	<u>Ehuneko 30</u>
<u>60 punturaino</u>	<u>Ehuneko 40</u>
<u>90 punturaino</u>	<u>Ehuneko 50</u>

4.4 Eskaera guztiak barematuko dira, eta lortutako puntuen taularen arabera dagokien ehuneko emango zaie.

Onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 2.000,00 eurokoa da.

Proposamen positiboa duten eskabideen guztizko zenbatekoa batuta, aurreko paragrafoan adierazitako muga aplikatu ondoren, laguntza lerro honen deialdia ebazteko erreserbatutako zenbatekoa gainditzen bada, guztizkoaren gaineko defizit ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

Proiektu bakoitzak gutxienez bost parte-hartzaile eta bost hektarea izan beharko ditu.

Ez da egingo 100,00 euro baino gutxiagoko ordainketarik.

## 5. artikulua. Eskaera aurkezteko epea, modua eta lekua

5.1 Urtero, dagokion laguntza deialdia onartuko da, eta bertan jasoko dira eskabideak aurkezteko epea, aurrekontu partida eta deialdia ebazteko gordeko den kreditua.

5.2 Eskaera kopurua: eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiagotan har dezake parte, bere lurzatiak dauden lekuaren arabera. Hala egitekotan, eskaera bana egin beharko du proiektuko.

5.3 Bana-banako eskaeraren edukia:

– Eskaera orria (erantsitako ereduaren arabera), behar bezala beteta eta izenpetuta.

– Eskaeraren eranskina (proiektuko bat izango da, proiektuaren kudeatzaileak aurkeztua).

Hau izango da haren edukia:

a) Proiektuaren barruan sartu diren eskatzaileen datuak (izena/sozietatearen izena eta NAN/IFZ).

b) Eskatzaile bakoitzak proiektuaren barruan sartutako lurzatiak, haien SIGPAC erreferentziaz identifikatuta. Eragindako azalera, guztira.

c) Aukeratutako metodoa (bufferra, barreiagailuak, ihinztatzea), lurzatieen banaketa espazialaz eta haren eragin-eremuaz justifikatuta.

d) Jarduerak egiteko proposamena eta proiektuan azaldutako helburua betetzeari buruzko azken txostena, teknikaren eraginkortasuna ebaluatzeko.

5.4 Arabako Foru Aldundiak eskubidea gordetzen du laguntzaren arauak betetzen direla frogatzen duen beste edozein agiri eskatzeko.

5.5 Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak bere 14.2 artikuluan ezarritakoa betetz, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuetako erregistro elektronikoen, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaez bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzeko dutenek.

5.6 39/2015 Legearen 28.2 artikuluen arabera, eskaera aurkeztearekin ulertuko da edozein administrazio gertatu duen dokumentazioa kontsultatzeko edo eskuratzeko baimena ematen duela eskatzaileak, prozeduran jaso ezean hark idatziz aurka egin duela, eskabidean dagokion aukera markatuta.

5.7 Eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak berariaz onartuko ditu laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

## **6. artikulua. Tramitazioa**

Dirulaguntzen zenbatekoak izapidetu eta kalkulatzeko, kontuan hartuko da kostuen moderazioa, fakturak eta ordainketa agiriak oinarri hartuz egiten baita laguntzaren ordainketa.

Epean aurkeztutako eskaerak soilik hartuko dira kontuan, eta gainera, laguntza eskatzeko beharrezko dokumentazioa izan beharko dute oinarri hauetan zehaztutako eran.

## **7. artikulua. Kide anitzeko balioespen organoa**

Honako hauek izango dira laguntza hauen kide anitzeko balioespen organoa osatzen duten pertsonak edo haiek eskuordetutakoak:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua.
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari atxikitako pertsona bat.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko Administrazio Atalaren burua.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta inguruabarrei dagokienez, kide anitzeko balioespen organoak bidezkoztat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahal izango ditu, modu arrazoiatua.

## **8. artikulua. Kontrolak**

8.1 Onuradunek foru dekretu honetan eta beronen garapen arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak kasuan kasuko administrazio kontrolak eta lurraren gaineko kontrolak egingo ditu.

8.2 Onuradunak utzi behar du Arabako Foru Aldundiak ustiatzean agindutako ikuskatze bisita guztiak egiten, eta eman behar du laguntzaren gainean eskatzen zaion informazio guztia.

8.3 Arestian aipaturiko baldintzetako bat bete ezean, laguntza gozatzeko eskubidea galduko da eta jasotako dirua itzuli beharko da, eta harekin batera, jasotako zenbatekoek sortutako legezko korrituak ere. Gainera, indarreko arautegiaren arabera bidezkoak diren egintzak ere abiarazi ahal izango dira.

#### **9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena**

9.1 Kide anitzeko balioespen organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean dagoen araudian oinarrituta. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, errekurtso horretarako arauei jarraituz. Aukerako berraztertze errekurtsoa ere jarri ahal izango da.

9.2 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

9.3 Emakida eta ordainketa ebazpenak izango dira, eta haietan laguntzaren zenbatekoa ezarriko da eskaera bakoitzerako. Ebazpena ezezkoa izanez gero, haren arrazoia zehaztuko da eta horrek ondorioak izango ditu proiektuaren baremazio osoaren emaitzan. Hortaz, gainerako ordainketak baremazio berriak eraginda gertatuko dira eta, hala badagokio, bidegabe hartutako kopuruak itzultzeko eskaera egingo da.

9.4 Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta aurreko atalean adierazitako informazioa emango da jakinarazpenean.

#### **10. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea**

10.1 Laguntzak eman eta berehala ordainduko dira.

Priekturako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 4.4 artikuluan adierazitako ehunekoak izango da, tratamendua emateko erabilitako produktuen kostuarena. Kopuruak banan-banan ordainduko zaizkie aurkeztutako elkarlaneko proiektuko eskatzaileei. 2021ean sortutako gastuenak izan behar dira fakturak.

10.2 Laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da honako hauek aurkeztea:

- Eskaera, behar bezala beteta.
- Eranskin osoa, kudeatzaileak aurkeztu beharrekoa, 5.3 artikuluan azaldutakoaren arabera.
- Egindako gastuen froga-agiriak: jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, onuradunak ordaindu dituen egiaztapenarekin. 2021. urtean egindako gastuak aukeratu ahal izango dira.
- Ordainketa egiaztatzea, dagokion banku transferentziaren bidez egingo da, edo merkataritzako trafikoan froga balio bera duen agiri baten bidez. Nolanahi ere, 2.500,00 euroko gastuak edo hortik gorakoak banku transferentziaren edo beste titulu baliokideren baten bidez frogatu behar dira, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzen eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzen urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Banku elektronikoko baten agiriak izatekotan, agiri horiek banku entitateak zigilatuta etorri beharko dira.

#### **11. artikulua. Irizpideak, baldintzak eta hartutako beste konpromiso edo eginbeharrak ez betetzearen ondoriozko zehapenak**

Nekazari batek nahiz proiektuak ez baditu betetzen foru dekretu honetan azaltzen diren irizpideak, baldintzak eta beste konpromiso edo eginbeharrak, gutxitu egingo da balioespenean lortutako puntuen guztizkoa, eta Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio ordura arte hartutako diru kopuruak, bai eta aplikatzekoak diren legezko interesak ere.

## 12. artikulua. Onuradunen eginbeharrak

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

12.1 Memorian ezarritako helburuak betetzea, proiektua gauzatea eta dirulaguntzen emakida oinarritzen den jarduerak egitea agindutako moduan eta epeetan.

12.2 Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

12.3 Emandako laguntza onartzea. Ildo horretan, laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epean onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

12.4. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo haien izenean eginkizunak betetzen dituen edozein organismo edo zerbitzu publiko nahiz pribaturi helaraztea foru dekretu honen babesean emandako dirulaguntzari buruz haiek beren betekizunak egikaritzuz eskatutako informazioa, eta, halaber, erakunde horiek edo finantza kontrolerako erakundeek egin beharreko egiaztapenak onartzea.

## 13. artikulua. Ebazpenaren aldaketa, ez-betetzea eta itzulketa

13.1 Dirulaguntzak esleitzeko eta ordaintzeko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat eragiten bada –betiere dirulaguntzaren helburua bete dela aditurik–, eta, hala balegokio, hauekin batera beste dirulaguntzaren bat eskuratu bada eta diruz lagundu daitezkeen zenbatekoaren gehienezko muga gainditzen bada, gerta daiteke dirulaguntzak esleitzeko ebazpena alda dadin eragitea. Horretarako, ordea, organo kudeatzaile eskudunak dagokion aldaketa ebazpena emango du, eta, bertan, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak doitu egingo dira.

13.2 Onuradunek ez badituzte betetzen hartutako konpromisoak edo foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Aldundiari itzuli beharko diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez ditu eragozten bidezko diren egintzak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

13.3 Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

13.4. Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzuli behar den, ikuskapen edo kontrol txostenari eta itzultzeko edo minoraziorako proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

13.5 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak aurreikusitako arau hausteengatik.

## 14. artikulua. Nahita egindako ez betetzeak

Nahita egindako ez betetzat hartuko dira onuradunak laguntza bat eskuratzeko beharrezko baldintzak artifizialki sortu dituela agerian jartzen dutenak, betiere neurriaren helburuen kontrako abantaila lortze aldera. Halakoetan, onuraduna baztertuta geratuko da bere eskubidez egokituko litzaiokeen laguntzatik, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien interesak itzuli beharko ditu, 10. artikuluan ezarritakoa aplikatzeaz gainera.

## 15. artikulua. Araubide juridikoa

Foru Dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoa bete beharko dute.



**16. artikulua. Beste laguntza batzuekin bateratzea**

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka nahiz beste administrazio publiko batzuek edo nazio zein nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntza edo dirulaguntzekin batera, ezin izango da, inola ere, onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

**17. artikulua. Laguntzak finantzatzea**

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta estatu mailako laguntzat joko dira.